

# EUSKOTRENEAN DONOSTIAKO ZERBITZUA ALDATU EGINGO DA ERREGE MAGOEN IRITSIERARAKO

## **Eibarko Udalbus udal-zerbitzuak zirkulazio berria izango du lanegunetan, datorren astetik aurrera**

Datorren igandean, urtarrilaren 5ean, Euskotren Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoak aldatu egingo du Donostiako autobus-zerbitzua, Errege Magoen iritsiera dela eta.

Zehazki, aldaketak egongo dira Zumaia-Donostia ibilbidea egiten duten Lurraldebusen UK09, UK10 eta UK11 lineetan, hala ibilbideari nola geldialdiei dagokienez.

Donostiarako sarreretan, 16:30etik 20:00etara bitartean ez da geldialdirik egingo San Martinen.

Bestalde, Donostiatik irteten diren autobusek ez dute geldialdirik egingo Askatasunaren Hiribidean, hori ere 16:30etik 20:00etara bitartean.

### **Udalbus zerbitzu berria (Eibar)**

Datorren astetik aurrera, Eibarko autobusen udal-zerbitzuak (Udalbus) beste zirkulazio bat gehiago izango du lanegunetan; 20:00etan aterako da Amañatik, Saratsuegi aldera.

Informazio gehiago lortu nahi duten erabiltzaileek eskura dute Euskotrenen telefonoa: 944 333 333. Webgunean ere informazioa lor dezakete ([www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus)), baita Twitterren ere (@euskotrenEJGV).

Igorpen-data: 2020ko urtarrilaren 3a, ostirala

*Euskadi, auzolana, bien común*

